


Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Nortasuna eta arriskatzeko ausardia

Ez dut nire burua gobernuz kanpoko erakundeen parera jarri nahi Iparraldeko talde bati elkarrizketa egiteagatik; alderantziz, damu naiz ezarri ziguten mugaren bestaldekoa apenas ezagutzen dudalako. Willis Drummond-en lehenengo diskoan aurkitutakoak oso kontent utzi nau. Irudimenez eta maisutasunez eskaintza oso berezia landu dute, axolagabeki 1970eko hamarkadako rockaren pultsua hartuz –hard-rocka eta psikodelia barne– eta era berean, intentsitatez beteriko post-hardcorearen itsaso zabalean murgilduz. Iraupenari muzin eginez, azeleragailua zapaldu edota esperimentatzeko hautua egin dute, gogoaren arabera. Hitzak ere txukunak dira, hausnarketa egitekoak. Honen ostean, beldur naiz –zentzu onenean– Karlos Lisabö-rekin Bonberenean erdituko duten diskoan zer egingeiko izango diren. Oso kontuan hartzekoak.



Anthology Willis Drummond

AUTOEKOIZPENA

 Iraupena: 38'52"
5 euro

WILLIS DRUMMOND

«Nahi duguna egiten saiatzen gara, eta horrek ematen digu gure nortasuna»

1970eko hamarkadako rock klasikoenaren oihartzunak dituzue, baina gaur egungoak eta freskoak ere bazarete...

Eragin handiak dauzkagu 70eko hamarkadan, batez ere AC-DCren lehen diskoak garai horretakoak dira-eta. Hala ere, espero dugu diskoa gaur egungoa izatea, gu gaur egungoak baikara. Musika barnean daukaguna erakusteko bide bat da; eta barnekoa gaur egungoa da.

“Gaur ez naiz ezer, emaidazu izatea”. Musika munduan ia guztia asmatuta dagoen honetan, talde bakoitzak bere nortasuna landu behar du. Hori al da zuen helburuetako bat?

Iruditzen zait nortasuna ez dela lantzen, ez musikan ez bizitzan, eta nortasun-lantze horren kontra doa

abesti hau. Gu egin nahi dugun musika egiten saiatzen gara, estilo, mota edo zer mugimenduri lotuta dagoen pentsatu gabe. Egiten dugun horrek ematen digu gure nortasuna.

Garapen eta aldaketa handiko kantuak dituzue. Abestietatik tira eta gorputzak eskatzen dizuenera arte ekiten diozue?

Guk musika sinpleagoa egin nahi genuke, baina ez dugu lortzen. Talde handienetakoen kalitatea hori da, musika ona egin, gauzak konplikatuta gabe... Ez daukagu zorte hori.

Iturri askotatik edaten duzue: hard-rocka, post-hardcorea, post-rocka, gauza esperimentalagoak... Ez duzue mugarik jarri nahi?

Gure musika propioa egiten saiatzen gara, baina bistan da gure eraginak ezin ditugula ezkutatu eta onartu dugu hauek aldarrikatzea noizbehinka. Hala ere, ez dugu mugarik jarri nahi. Gure helburu bakarra da jendeak plazera hartzea gure kontzertuetan, edo-nork gozatzea.

Zer du Hegoaldeko rockak Iparraldekotik inbidiatzeko? Beti alderantziz dela dirudi...

Nahi nuke, baina zaletasunak ez dira hitzekin sortzen ekintzekin baino. Hala ere, ez gara oposaketa horren alde. Ez diogu garrantzirik ematen horri, nahiz eta jakin gutxi gustatzen zaigun exotismo horri esker ari gara gure buruak ezagutzera ematen.

